

• ASTERO GAIA •

Lurreko Telebista Digitala

Prest gaude eraldaketarako?

Ez genuen haren behar handirik, baina hemen da Lurreko Telebista Digitala. Abantailaz betea, buruhausterik ere sortzen ari da. Eta batik bat, iraultza ekarriko du telebistara. Iraultza isila eta geldoa agian, baina handia. Itzalaldiaren ostean, ezer ez da berdin izango.

UNAI BREA

Argazkiak: Dani Blanco





TELEBISTA DIGITALA ez zaigu guztiz arrotza. Urteak dira satellite bidezkoa ezagun dugula; ez hainbeste, gurean, kable bidezkoa. Orain, urte gutxiko prozesu azkar batean, beste sistema bat dator kigu: Lurreko Telebista Digitala (LTD). Hau da, ohiko uhina ohiko antena bidez zabaldua, baina teknologia digitala aplikatuz. Gaur egun ia etxe guztietan dagoen telebista analogiko arruntarekin alderatuta, LTDak hainbat abantaila du: kate gehiago ikusteko aukera, eta irudi eta soinu hobeak, besteak beste. Berez, kableak eskaintzen du kalitatetik handiena, baina LTDa bultzatu da. Badira hainbat arrazoi horretarako; esaterako, kablea instalatzeko arazoak orografia latza duten herrialdeetan, baina alde horretatik LTDak ere ematen ditu buruhauste franko satellitearekin konparatuta. Bada beste sistema berriago bat, ADSL bidezkoa, oraingoz ez oso zabaldua baina adituen esanetan besteak baino hobea. Zergatik orduan LTDa?

Arrazoi nagusiak ez dauka zerikusirik ikusleen eskariekin edo telebista kateen nahiekin. Askoz praktikoagoa da: espektro erradioelektrikoa ez da infinitua. Aitzitik, ondasun urria da, eta teknologia digitalak ondasun hori optimizatzeko aukera eskaintzen du. Ohiko sistema analogikoan kanal bat sartzen den lekuan, sistema digitalari esker lau inguru sar daitezke. Horrek eragin du Europa osoan, eta munduko gainerako herrialde aberatsetan,

LTDak asko zatikatuko du eskaintza, eta horrek akabatuko ditu gaurko audientzia handiak eta, ondorioz, telebista pribatuaren negozio eredua ere. Adituen ustez, aro digitalean ordainpeko kanal espezializatueta oinarrituko da programazioa.

LTDa bultzatzea azken hamarkadan. Gainerakoak, pobreak, motelago dabilta, baina luze gabe iritsiko zaie txanda. Jakina, digitala ezartzeak analogikoa kentzea dakar. Espektrora "lekua" utzi behar da.

Europako dozena erdi herrialde txikik burututa dute dagoeneko itzalaldi analogikoa. Gainerakoak datozen lauzpabost urteetan iritsiko dira helmugara. Euskal Herrian data bi ditugu: 2010eko apirilaren 3a Hegoaldean eta 2011ko azaroaren 30a Iparraldean. Hortik aurrera ezin izango dugu, nor bere aldean, telebista analogikoa ikusi.

Itzalaldia eta gero zer?

LTDa unibertsal bihurtzeak hainbat arlotan eragingo dio telebistarekin dugun harremanari. Batetik, edukiak berriz diseinatzera behartuko ditu kateak, nahiz eta ez dagoen guztiz argi nola. Baina modu batean edo bestean, gaur egungo ereduarenak egin du; Espainiako telebista kontsumitzaile elkarte nagusiek ez dute zalantzarik horretaz. "Kate jeneralista handien negozio eredua desagertu egingo da", dio Alejandro Peralesek, Komunikazioaren Erabiltzaileen Elkarte (AUC) presidenteari; "gaur ikusleak saltzeaz bizi dira baina hori agortu egingo zaie LTDarekin". Norbaitek gogoan badu "hainbeste segundoko iragarriak hainbeste balio du" leloa, ahantz dezala. XXI. mendean, iragarleekiko tratua beste era

batez egiten dituzte telebista operadoreek: nik bermatu egiten dut ikusle kopuru jakin bat egongo dela telebista aurrean zure iragarkia ematen den unean, eta zuk hainbeste ordaindu behar didazu trukean. Horrek esplikatzeko du audientzia guduaren garrantzia. Baina LTDak audientzia handiak hautsiko ditu, eskaintza askoz zabalagoa izango baita. Nekez lortuko du inork bi edo hiru milioi ikusle erakartzea, programa beraren aurrean.

Parrilla kontzeptu bera desagertuko da, Peralesen ustez. “Oraingo parrillak sintagmatikoak dira: saio batek bestera eramaten zaitu, modu logikoan. Baina LTDarekin programazioa askoz likidoagoa izango da, ez da egongo ordutegi finkoen hain menpe. Ikuslego tradizional bat egongo da oraindik, eta kate batzuk egongo dira horientzat, baina oro har, uste dut jende gehienak Interneten antzeko unibertso batera joko duela, zer eta noiz ikusi erabakitzeke askoz aukera gehiagorekin”.

Kateen indarra, analogikora bideratuta oraindik

Orain *simulcast* aroan gaude. Analogikoa ez da desagertu, baina digitala ikus daiteke jadanik. Euskal Herrian, bai Iparraldean bai Hegoaldean, 2005ean hasi zen LTD bidezko emisioa, legediak behartuta. Analogikoan ikus daitezkeen telebista jeneralistek badituzte kanal digitalak beraz. Horrek aztarna ona eman liezaguke aro digitalean ikusi ahal izango denari buruz, baina ez da fidatzea komeni. Gaur gaurkoz, LTDa ikusi ezin dezakeen jende gehiegi dago oraindik. Negozioak analogikoan segitzen du, eta ahalegin gehienak horretara bideratuta daude. Hasieran, kanal digitala irekitzera behartu zituztenean, Espainiako telebista jeneralista gehienek analogikoan zuten programazio bera emititzen hasi ziren. Geroago, Madrilgo Gobernuak akuilatuta, kate berri batzuk sortu zituzten, baina momentuz, horietan ikus daitekeena ez da oso erakargarria.

“Nire iritziz, kate handiak ez dira oraindik jabetu itzalaldi analogikoaren ostean gertuko den iraultzaz”, adierazi du Maribel Martinez nafarrak. Martinez FIATYR ikusle elkartearen federazioko bozeramalea da. Haren aburuz, saio bakar batek atxiki dezakeen audientzia gero eta txikiagoa da. Dagoeneko hasita dagoen prozesua da, baina negozioa publizitate salmentan oinarritzen duten kate pribatu handiek, itxuraz, nahiago dute entzungorrena egiten jarraitu. Ezin izango diote jarrera horri luzaz eutsi ordea.

LTDak nola eragingo dio programazioari?

Espezializazioa izango da gakoa. Publizitate salmenta handirik ezean, kateek beste non-bait bilatu beharko dituzte irabaziak. Bilaka-

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a





Gainera auzoa, Z/G

20212 Olaberria

☎ 943 16 08 62

www.vilarinomotor.com

info@vilarinomotor.com

Tokiko telebisten nahaspila

Urtetako utzikeriaren ondorioz, tokiko telebisten eremua anabasa ikaragarria zen Espainiako Estatuan LTDa ezartzeko prozesua hasi zenean. Legedia egon bazegoen, baina garatu gabe; hala, edozeinek jar zezakeen tokiko telebista bat. Badira udalenak, badira sektenak, badira arratsaldeko hiruretan pornografia ematen dutenak... Azkenik, Espainiako Gobernuak mataza hori ordenatzeko LTDa baliatzea erabaki zuen. Tokiko telebistak besteak baino azkarrago digitalizatzea agindu zuen: 2008an itzalaldia egin behar zen. Horretarako, lehiaketa publikoak egin behar ziren autonomia erkidegoetan, eta horietara aurkeztu zitezkeen bai jadanik existitzen zirenak eta baita berriak ere. Kanal kopurua mugatua da noski. Launa barruti bakoitzean.

Itzalaldia egiteko eguna igaro da, eta lehengo nahaspilaren lekua beste batek hartu du. Erkidego batzuetan lehiaketak egiteke daude, beste batzuetan helegiteak aurkeztu zaizkie emaitzei... Toki batzuetan, irabazleak hasi dira emanaldiak egiten –%90 aurretik existitzen ez ziren kateak dira–, eta beste batzuetan auskalo noiz. Itzalaldi orokorra 2010ean izango bada ere, baliteke ordurako zenbait tokiko telebistaren emanaldiek analogoan jarraitzea, haien etorkizuna argitu arte.

Hego Euskal Herrian, Nafarroak aurre hartu dio EAeri: aurtan hasi dira emisioak. EAEn berriz, lehiaketa eginda dago baina hilabete batzuk falta dira emisioa hasteko. Epea, edonola, ez da itzalaldi analogiko orokorraren datatik harago luzatuko.

bide logikoena kanal tematikoak sortzea izango da, honezkero satellite eta kable bidezkoan indarrean dagoen ereduari jarraiki. Eta horietan bezala, kanalak ordainpekoak izango dira.

Hori litzateke logikoena, bai, baina badira oztopo batzuk. Espainian, orain dela hiru urteko Errege Dekretu batek dio LTDa dohainik ikusi ahal izango dela. Dekretuak atea zabalik uzten du ordainpeko formulak ere sortzeko, baina bidea gehiegi zehaztu gabe. Besteak beste, gobernuak bere gain hartzen du aukera hori aztertzeako konpromisoa, baldin eta kateak ados badaude gaiaren inguruan. Momentuz, ez da lortu adostasun hori. Kate pribatuek argi daukate etorkizuna ordainpekoa izango dela, baina ez dira ados jartzen urratsa egiteko une egokiaz. Merkataritza estrategiak daude tartean. Ordainpeko telebistak produktu salgarriak behar ditu, ikusleak bereganatuko baditu. Eta produktu salgarriak bi dira batez ere: zinema eta futbola. Zinema denen eskura dagoenez, futbola eskuratzeko borroka da gakoa. Hala, La Sextak, esaterako, etorkizunean ordainpeko kate bihurtzean oinarritu du bere negozio estrategia osoa. Horretarako, ondo lotu ditu futbol emanaldiak. Baina legedia du oztopo, eta beste kate batzuek, lasterketa horretan hain ondo kokatuta ez daudenek alegia, ez dute ahalegin berezirik egingo *status quo* hori alda dadin.

Futbola eta zinema aipatu ditugu. Eta gainerakoak? Zer gertatuko beste saio mota tradizional batzuekin, lehiaketekin esaterako? Itxuraz, ez dirudi harpidetza bat ordaintzeko bezain saio erakargarriak direnik. Baina kateek nekez eutsiko diote horien doako emisioari, ikusle kopurua amiltzen bada. Iraugarleak ez dira ergelak. Gauzak horrela,

**LTDak audientzia handietan
eta publizitate salmentan
oinarritutako negozio
eredua agortzea
eragingo du**

ikusle elkarteek kalitatezko programazioaren aldeko apustua egiteko eskatzen diete kateei, baina esperantza handirik gabe. Giltzarria telebista publikoa izan daiteke. “Aro digitalean kalitatezko eta doako programazioa ikusi ahal izateko bermea telebista publikoa izan behar da”, uste du Alejandro Peralesek.

Telebistarekiko harreman berria

Bada beste negozio bide bat: telebista bidezko salmenta. Ez nahastu teledenda gogaikarriekin; hau beste zerbait da. Telebista erosketak egiteko kanal handia izango dela uste du AUCko presidentek. Eguneroko erosketez zein bestelakoez ari da Perales. “Saio oso bat bihur daiteke publizitate-euskarri. Peli-kula bat ikusi eta aukera edukiko dut une berean protagonistak daraman jantzia erosteko. Edo nire gustuko zaletasunari buruzko programa ikusten nagoela, etengabe izango dut aukera zaletasun horrekin zerikusia duten produktuak erosteko”. Interneteko bannerren antzera, baina abantaila batekin: jende askok du Internet, telebista denok.

Horrelako aukerak eta askoz gehiago eskainiko ditu LTDak, teknologia digitalak ekarriko duen berrikuntza nagusiari esker: interakzioa. Telebistako botoia saktuz telebista baino zerbait gehiago piztuko dugu, LTDa ezarrita dagoenean. Peralesek dio Internet eta telebistaren arteko bereizketak ere desagertuko dela, bietan antzeko zerbitzuak topatuko ditugu eta. Informazioaren Gizartean, terminalez hitz egitea izango da egokiena. Bi motatakoak, argitu du Peralesek, finkoak eta mugikorrak. “Eta finkoa berdin izango da ordenagailua zein telebista aparatua. Muga horiek azkar lausotuko dira”. Eta lausotzen ari: Frantzian, urtea amaitu baino lehenago, LTDko –frantsesez